

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

338n. zenbakia

2008 maiatza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

LONTXO LAGUN MINA



Lorenzo Peña Etxebarria lagun xume ta maitekorra

Aspaldi xamar ontan lagun zar bati lau lerro xistriñ batzuk idatzi nai nizkion, dalako adiskidea Lorenzo Peña Etxebarria zan, illabete batzuk ezpaitira gure artetik juan zala. Aretxabaltar jator onek utsune galanta utziko zioten bere senitartekoai eta nai genion guztioi, ain xume ta maitakor zan bera.

Lorentxo edo Lontxo jaiotzez Aretxabaletakoa (Gipuzkoa) zan aurtzaro eta gaztaroa an bizitua baitzan; itxura aldetik gizon dotoria zan soñez bikaiña ta planta

onekoa, luxeraz andia bazan ere biotzaren aldetik andiago oraindik. Nik ezagutu nunean larogei bat urte izango zitun baiño alaere gordinik zegon, sasoa latza eta umoria ona eta itsaskorra. Nik bere ezagutza egin nun J. M.^a S. Sebastian “Latxaga” apaiz idazle euskaltzale aspertezinaren bidez.

Gure izkuntzan aditua dan onek eskatu zidan idazlan bat egitia bere (Lontxon) anai bati buruz, gizaseme au “Aitza” izengoitiz ezaguna zan Guda aurreko euskal aldizkari ta egunkarietan; kazetari oso txukuna zan euskerazko elean ta ortik kanpo eusko gudaria izan zan, tamalez Santanderren erailla. Nik idatzia “Diario de Navarra”n argitaratu nun eta berialaxen autsak arrotu zitun izkribuak.

Onezkeroztikan Lontxok amaika bider eskertu zidan lantxo au, ez itzez bakarrik, ekintzez ere bai. Bein Sara'ra (Lapurdi) juan ginan Latxaga, Lontxo ta irurok eta bazkari ederra eman zigun. Beste beñ Granada baserrira (Errezil) txangoa egin genun ta berak ango kontu guztiak egin zizkigun.

Lontxo gizonari itzuliz edo bueltatuz, esan itz gutxitan ona eta txintxua zala, gaur egunean ikusten eztegun ale bakan oietakoa, danen gainetik gizalegia aparta zun. Aiton onek bazekin egoten lekuetan eta alaitasun pittin batekin jendea bereganatzen zun.

Bereak eta bi ikusiak zitun gazte denboran; bi anai ilda. Gerran, bera ere aurre xamarrean ibilli bearra tiroartean (etxera ekarri arazi zuten orduan amasei urteko mutil koxkorra bestetik etzan).

Au eta gero gose urteak, lana gogotik egin biarra, etxean guraso eta senide gazteagoai laguntzearren.

Bizitzaren gorabera arek moldatu zuten Lontxo izakera sendua baiña beñere galdu gabe bere biotzaren xamurtasuna.

Mutil azkarra izan zan eta Hosteleria del Norte'ko sortzailletako bat bera genun, makiña bat lan eratu eta oztopo ugari gainditu ostean.

Nik bere gogorapen ezin obia daukat eta aren gizontasun neurrigabea goratzen eznaiz nekatuko.

Arrek kontatutako pasadizu asko goguan dauzkat baiña danak azaltzia luzetxo litzake; dijoakiola Lontxo lagunari solasaldi apur au eta egun aundir arte, Gizon.

Lorentxo Peña laguna genun
euskaldun txintxo askua,
Aretxabaletan jayotakua
ta bertan azitakua;
langille fiña aixkide obia
beti euskerarten aldekoa,
izki gutxitan esango nuke
gizon kategorikua.

Joxe Iñaxio Salaberria
2008-02-21

EUSKERA ETA INGURUKO IZKUNTZAK



Eltxe'ko anderea (k.a.'k V gizaldikoa). (Iberoak)

Nire lankide ta adiskide dan Atutxa'tar Paul'ek eskuratu daustaz internet'en/MSM/microsoft'en dagozan jakin-garriak. Oso arduragarriak dira.

Ba-dakit berak jakingarri oneik beste elburu baterako erabilliko dauzana: Lan aundi bat egiten diardu euskerearen lurraldea zein izan zan adirazteko, batez toki-izenak kontuak artuta.

Nik beste ikuspegi bat daukat eta nire idazkiak ez dautsoela kalterik egingo uste dot.

Gaiñera berak urtebetean amaituko dau lan ori, nire idazkiak ostera, urteetan joango dira agertzen ZER'en.

Beste bagerik, asi dagigun lenengo lana, euskereak eta inguruko izkuntzak dabezan artu-emonak agertzeko.

Euskeran ikuturik geien izan daben izkuntzak gaztele-rea, gaskoierea eta frantzerea izan dira eta ikutu ori urteen joanean aldatzen joan da.

Esaterako Iparraldean maillego edo prestamo asko artu dira: esdeserta edo jan-gaiñekoa, edo mera edo alkatea...

Gazkoierak ikutu aundiagoa izan dau Zuberoeran, erri-izenak sorkeran, esaterako. Baiña euren ikutua igarokorra izan da, euskerea bere lekuan egoan artean.

Euskerearen inguruan izan dira iberoera, keltera eta latera.

Oneik gaiñetik eraso dautsoe euskereari, superestratoak dira, gero esango dogun lez, eta gure izkuntzan ortik etorritako zauri osatuak ikusten dira: aboskeran, itzetan, gramatikan eta abar.

Itzi ete eban ondoren Banu Kasi'tarrak erabillen arabiar izkuntzak batez be Tafalla ta Muskaria'ko euskeran? Badaukaguz ortik sortutako toki-izenak, esaterako Zidakoz ibaiarena.

Latereak ikutu aundiagoa izan eban, ez zan asko peitu euskerea bera be ikutu onen eragiñez galtzeko. Euskerea erromatratuta itzi eban latereak, baiña ez larregi, ez anglera edo doitzera baiño geiago.

Lateratik artua dala diño aditz tinkoak galtzea, esaterako dantzut/entzuten dot. Baita -tu atzizkiagaz aditzak sortzeko oiturea be, maitaTU esaterako.

Gaur euskereari lerkaiak jaurtiten dautsoezan izkuntzak gastelera ta frantzerea dira, batak Auñamenditik beerantza eta besteak gorantza. Margo bitako euskerak sortu dira ortik. Gero esango dan lez, izkuntza bi oneik euskerearen superestratoak dira, gaskoiera adstratoa dan lez. Gogoratu, gaiñera, zelan illuntasuna ezarten dautson frentzeran Zuberoa'ko euskereari, ainbeste Û sartu diralako.

Erderismoak deritxe otik etorri diran ikutuai: itzak, jioskera, atzizkiak eta abar. Sakon aztertu eban gai au Sebero Altube'k, erderismos liburuan.

Danaren barru-barruan dagoana len-euskerearen edo "proto vasco"ren arazoa da. Batzuk Akitania'ko euskerea izan zala diño, baiña agertu diran ango idazkietan gaurko euskerea daukagu: seme, cison, bela, belasko... Len-euskerea ba'litz aldakuntzak aundiagoak izango litzakez.

Ba-daukaz euskereak itz-erro oso zarrak eta oneik dauke len-auskeratik artuen antza.


GURE IZKUNTZAREN JATORRIA

Orain-arte iñok ez dau aurkitu euskerearen ama izan leiteken izkuntzarik. Gitxienez gure endea billatzen dogu-nean, esan geinke kromagnon'darrak garala. Euskeran olakorik be ez.

Leienda ta mitoak kontuan artzen ba'doguz, ementxe geure lurraldean, eltzen dira kromagnon'en aldera arte "zezenoirri", "txalgorri" "beigorri" eta "galtzagorri" txerrena agertzen dira eta arri-aro zar edo paleolitiko gizakia bizi zan lekuan agertzen jakuz leiza-barruko marrazkiak.

Ba-dagoz neolitiko edo arri-barri aldiko leiendak eta mitoak be, metalen aldikoak be bai eta erromatarren denporakoak be ugari. Dana doa jarraian, aririk galdu bagerik.

Baiña antxiña ez dala, euskerea gaur baiño lurralde zabalagoetan bizi zan, batez be sortalderantz: Auñamendi



Iberoen idazki bat.

osoa, Aran ibarra eta, bear ba´da, Lurrarte itxasora arte. Euskerearen lurraldeak ziran, Corominas izkuntzalariak aztertu dauan lez. Sartalderantz Galizia´ra arte eltzen zan toponimiaren ezaugarria, naizta ez ain ugari. Gogoratu Amaia mendia, edo Aradui (aranak dagozen lekua: Tierra de Campos edo Orbigo ibaia (Ur-biko)...

Euskereak beste izkuntza batzukaz< izan dauzan artu-emonak agertzeko bauza gitxi dakigu. Izkuntza jatorra dala bai, senidebagekoa dala be esan bear dogu, baiña berak gramatika oso aberatsa dauala, baita itz-erakunde berezia eta joskera aparta be.

Ez da iberoen izkuntzaren senide naizta luzaro alkarren ondoan bizi izateak bere eragiña euki. Alkoí´ko idazkiak euskerearen antz aundia dauka, adierazpena argi-argi ulertu ez arren. España´ren sartaldean euskeraz egiten zala be esan da baskitanoak ara zabaldu ziralako. Ori agertzen da leizetako marraskietan, or euskerea izan leiteke iberoen izkuntzaren sustratoa.

Akitania´n izkuntza euskalki bat zan, idazkietatik ateraten dan lez:Umme,sahar...

Lafon´ek esan ebana, euskerea neolitikuan etorri zala, ez da sinistekoa, askok sinistu arren. Lafon´ek Itziar´eko buru-azurrak artu ebazan oiñarri lez, baiña or bitartean millak urteak dagoz.

Bear ba´da euskerearen aurreko izkuntzak izango ebazan artu-emonak beste izkuntza batzukaz, indoeuropearrak etorri baiño leenago. Paleolitiko edo arri-zar aldiari erabilten zan izkuntza gero latiña izan zanaren antzekoa izango zan, orduko jakintzaren izkuntza.

Azkenean esan-bearrekoa dogu Koldo Mitxelena´k diñoana:Euskerea nondik sortu zan jakitea misterio bat da, kate orretan esak peitzen diralako.

Baiña ba-dago beste ulerbide bat: Kromagnon´ek bertan ikasi ebala berba egiten eta millak urteetan osotu eban izkuntza dala euskerea. Orretarako oiñarri labur bat dira gaur be bizirik dagozan itzak: Aitzurra, aizkorea, aiztoa... Onein sustraia “aitz” da eta esan lei arri-zar aroan sortutako itzak dirala, lanabesak arriz egiten ziran aldikoak.

IBEROAK

Gure inguruko errien artean kontuan artu-bearrekoak doguz iberoak.

Erdi-euskaldunak ziran, izenak berak be adierazten daukun lez; ibero izena ibaitik dator eta “Ebro” ibai-izenak be jatorri bera dauka.

Erdi-ugarte onen zati bat eurena izan zan, ipar-aldean sartalderantz zeltak geratzen ziralako, eurentzat eben erdi-aldeetik sortalderantz.

Euren izkuntza eta idazkerea eukezan eta aspaldion ospetsu egin dira aurkitu diran idazki asko eurenak diralako.

Onetan bereizi dan batek esan euskun euskerea jakiteak asko laguntzen dauala arein idazkiak ulertzeko.

Zergaitik ez ete genduzan guk, euskaldunok, artu iberoen izki idatziak? Geure idazkerea eukiko gendun! Orri onetan agertzen dogun idazki baten ikusi daiteke zelan idazten eben.

Irudiak egiten be onak ziran. Or daukagu “Eltxe´ko anderea” edo “Dama de Elche” deritxon irudi ederra. Beste irudi askoren artean. K.a.´ko IV gizaldi ingurukoa da, ondo margotua eta ondo apaindua.

OLAZAR'tar Martin'ek



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

GARIBALDI

Beste lurralde batzuk bat eginda egozanean, laterriak euren buruen jabe ziran aldian, Italia egoan atzeratuta, batasun ori lortu bagerik. Eta batasun ori lortzea ez zan gauza erreza iksuten, Pipino'k egin eban emoitzaren ondoren Italia-barruan egozalako Aita Santuaren lurraldeak, eta beste lurralde asko inguruko laterrien esku egozalako.

Garibaldi izan zan lenengoz ardura au gogoz artu ebana.

Zelako gizona zan? Ona emen labur-labur esanda: Abertzalea, askatasun-zalea, gizarte-zalea edo sozialista, masoia, eta iraultzailea... Ezagutzeko gizon pozgarria baiña beragaz bizi izateko arriskugarria.

Niza'n jaio zan 1807n. urteko uztailaren 4n. egunean, Napoleon nagusi zala.

Lenengo mariñel izan zan, gero masoi biurtu zan eta Italia'ri begiratzen eutson aberri bat lez, agintaritzak erkal edo errepublikea ebala.

Bere burubideak onartuak ez ziralako, Ameriketara iges egin bear izan eban eta Brasil'en sortu eban iraultketa, Uruguai'n ostera gudak. Emen ikasi eban militarren jokabidea.

Zerdeña'ko erregeagaz izan eban beste gudaldi bat eta galdu egin eban.

Erroma'ra urreratu zan, baiña barriro erbesteratu eben. USA'ra joan zan. An lan eginda ondo bizi zan, baiña bere buruan Italia alkartzea zan elburu nagusi.

1854n. urtean Italia-ondoan asi zan bizi izaten, Zerdeña'tik urrean eta pentsalari ebillan: Zelan batu Italia? Errepublikak bakar bat sortu? Ala liberalen monarkia bat?

Sizilia'ko borboien aurka izan eban beste gudaldi bat.

Gudarostea ezagutu erazteko, arkondara gorridunak ezarri eutsen izena eta izana, bera buru zala. Sizilia ugarteak eskuratu eban eta andik Napoles'era sartu zan 1860n. urtean. Eta Volturmo ibaiaren ondoan nagusi agiri zan. Gaeta be eskuratu eban.

Eginda egoan Italiaren batasuna? Ez oraindiño oso-oson Aita Santuaren Laterriak peitzen jakozan. Eta iparraldean Austria'tarrak agintzen eben.

II Biktore Manuel zan Italia'ko erregea eta gertu egoan Erroma izteko, baiña bera ez zan makurtu orretara. Erregeak egin eutsozan eskintzak ez ebazan artu Garibaldi'k eta aurrera jarraitu eban.

1862: Aspromonteko gudaldia. Bera zauritua eta baitua izan zan.

1866: Aita Santuaren Laterrien aurka jo eban Garibaldi'k, baiña galdu egin eban Aita Santuari Frantze'k lagundu eutsolako. Baitu egin eben baiña ez luzaroko.

1870: Abertzaleak Erroma artu eben: Ba-daukagu Uri Nagusia! Aita Santua Batikano'n espetxe beten lez geratu zan.

1874: Garibaldi pozez Italia'ko parlamentari, sozialisten aldetik.

1882: Urte onetan il zan Garibaldi.

Or amaitu zan Italia'ren batasuna lortzea, baiña munduko kristiñauak ez eben onartzen Aita Santuaren egoerea. Konponketa batera eltzeke, urteak itxaron bear izan ziran.

Musolini'k eta Aita Santuak izenpetu eben Letran'eko Ituna: Aita Santua'ri laterri txiki-txiki bat itzi jakon, Eleiza osoa zaintzeko aske izan zeitean. 1927n. urtean izan zan ori eta urteen joanak agertu dau urtebide ona izan zala.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebaki orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

DAMON ETA PITIAS (SIRAKUSA)



Sirakusa'n, Kristo baiño lenagoko V gizaldian adiskide aundi bi bizi ziran: Damon eta Pitias. Dionisio ankerra zan an agintari.

Dionisio ankerrak ez eban bear zio aundirik gizaki bat ilteko eta begitan artu eban Pitias eta ilteko agindu be bai. Pitias'ek sendo entzun eban agintariaren erabagia eta erabagia bete baiño len mesede bat eskatu eutson: Etxekoak agurtzeko eta gauzak ondo moldatzeko, illebeteko epea.

Barri txar ori entzun ebanean Damon, Pitias'en laguna, joan zan Dionisio'ren aurrera eta laguna itzuli-arte bera egongo zala espetxean esan eutson. Dionisio ortarako gertu egoan eta Pitias'eri emon eutson illebeteko epea gauzak atontzeko, baiña ez daitela aitzu epea amaitzen danean. Eltzen ez ba'zan, bere lekuan geratzen zan Damon ilgo ebala.

Irurak batera zirala, joan zan Pitias bere etxera, esan eutsen etxeokoi zer jazo jakon eta bideak artu ebazan bera ilten zanean etxeokoi bakean bizi eitezana eta uriburura itzultzeko prestatu zan. Agurtu ebazan etxeokoi eta adiskideak eta guztiak samintasunez beteta itzi ebazan eta bera be biotza erdibiturik.

Uribururako bidea luzea zan eta berak ainbat lasterren eldu nai eban bere orde espetxean egoan Damon zintzoa askatzeko. Baiña asmo guztiak ez dira beteten eta itzultzeko orduan oztupo asko aurkitu ebazan: ekaitzak, uriolak eta abar...

Sirakusa'ra sartzeko atera eldu zanerako ordu gitxi peitzen ziran Dionisio'k emondako epea beteteko.

Arin eta larri joian Sirakusa'ko kaleetan agintariaren jauregi-aldera. Arnas-estuka, ito-bearrean igon eban jauregiko mailladi luzea eta agintariaren gelara sartu zanean, ikaratuta geratu zan: Orduantxe jazo eban aizkorea zigortzailleak Dionisio'ren aurrean Damon'eri samea ebagiteko. Eta Damon gizajoa, enbor gaiñean samea ebala, jainkoari erreguka egoan.

Itxaron! Ez il Damon!- oi u egin eban Pitias'ek-emen nator!

Zurtz eginda geratu ziran guztiak Pitias agertu zanean, aizkorea eskuetan eukan zigortzaillea bera be bai. Arian ketan joan zan Pitias Damon makurtuta egoan lekura eta bere lagunari eskerrak emon-ondoren bere samea ipiñi eban enbor-gaiñean.

Dionisio ankerra ta biotz gogorrekoa zan, baiña ori ikusita arritu egin zan oso-osoan lagun bi arein adiskidetasuna ain aundia zala ikusi ebalako. Beste egun baten beteko ebala bere zeregiña esan eutson zigortzailleari eta lagun biak alkarragaz jolastu egiela agindu eban. Pitias'eri zigorra parkatu egin eutson. Arrezkero lagun bi orrei bakean izten eutsen eta bien lagun izaten alegindu zan Dionisio erregea ankerra.

OLAZAR'tar Martin'ek

IZARRA

Ortzia urdin dago
ederra dariola
egal danetatik,
oi gau zoragarria,
urra dariozu
zeru urdiñetik.

Nor da zure Egille.
izardi zoragarri,
uridin bikain ortan...
zure jakituria
norengandik datortzu
maitasun orretan...

Bat bera, bakarrik, da
ori egin leikena...
zeru-lurren Jauna,
eta izar guztiak
aintzaz goratzen dabe
zerutar Jabea

MAITASUNA

Loreen lorea zara
biotz danak bigunduz
gozotasunagaz,
jakituri ederra
eztitu dozu zugaz
laguntasunagaz.

Gorrotorik ez dozu,
bake ta poza dira
lagunik nenak,
gizarteko kateak
urrez jantzia daukaz
lurreko semeak.

Anaitasuna dator
soiñurik ederrenaz
gizarte maitera,
gizadia aurrera
gogorik onenagaz
bizi izatera.

PAULIN

ITSASLAPURRAK

(3n. SARIA)

Ba-zan bein Bizkaiko kostaldean aurkitzen zan arrantzale-errixka bat. Zoriontsuak ziran itsasoak emoten eutsen aberastasunagatik. Euron arbasoen jakinduria jaso eben eta itsasoan jaun eta jabe ziran, noizean bein itsasoaren aserraldien ikaratu arren ondorioz.

Matxintxok zortzi urte eukoizan eta amari laguntzen eutson sareak josten, aita itsasoan ebilen bitartean. Bere lagunik andiena txakurtxo bat zan, beragaz joaten zan leku guztietara.

Ama zarataka asten jakon Matxintxori, Txuriko txakurrarekin etxera sartzen zan bakoitzean, baina ez eutson ajola. Pozik ebilen txakurtxoaren konpainian.

Zenbat bider esan bear deusut ezin zariela sartu zu eta Txuriko etxe barrura? Amak.

Alantzik pasatzen ziran egunak, asteak eta ilabeteak.

1884. urte ingurua zan ezbearra gertatu zan urtea, Eun ta amar itsasontzi egozan errian eta egunero ateratzen ziran itsasora goizean goizetik eta gaueko iluntzerarte. Baina danetatik, egun bat izango gogoangarriena be!

Pasatzen naizenean
zure leiopetik.
negarrak urtetan deust
begi bietatik.

Zergatik, zergatik,
zergatik, zergatik?
Zergatik negar egin...

Baina, bai negar egin zala egun aretan! Irurogeta amar itsasontzi inguru ebizan arrantzan eta bein arraina arrapatu ondoren etxerako bidean etozen. Baina, aize zakarragatik eta itsasoaren aserreagatik ezin ziran kaira sartu; beraz, itsaso sakonean gelditzea erabaki eben, areik eta ekaitza baretu arte.

Alako baten, enbata izugarria sartzen asi zan eta ezin zan deus ikusi, orregaz batera galerna edo itsas-ekaitza etorri zan eta arrainez beterik egozan itsasontziak aitzen aurka jotzen asi ziran eta andik gitxira ondoratzen.

Jendeak ba-ekian zeozer gertatzen ari zala, baina zer zan ezin eben igarri. Elizako ezkilak joten azi ziran eta errian egozan arrantzale zaarrenek txalupetan joateko naia erakutsi arren erriko agintariak, geldi zain egoteko, agindu ostean, ezinegona nagusitu zan errian. Emakumeen negarren aldamenen umeak batuz joan ziran negar zotinka, zer gertatzen zan jakin ez arren, zeozer txarra etorrela ba-ekiela.

Gaua luze joian, baina asi zan argitzen. Ez zan itsasontzirik ageri. Tristurari ezinegona geitu jakon eta itsaslabarrera abiatu ziran geienak. Beste batzuk ordea, txalupak atondu eta itsasoan barna abiatu ziran.

Itsasontzien ondakinak ikusten ziran soilik, ez zan inor ageri.

Orduak aurrera egin aala, etsipena nagusitu zan errian. Matxintxoren aita eta osaba be galduta egozan.

Etorri ziran txalupak bueltan etxera, eta eurokin zortzi lagun etozan, Matxintxo eta ama xistu baten abiatu ziran kaira. Ia ez egoan lekurik, erri guztia egoan norbaiten zain. Matxintxok ez ebazan aita ez osaba ikusten.

Erritar denek eukon nonor itsasoan, eta zortzi pertsona soilik sartu ziran egurdate aretan. Egunak aurrera egin aala gorpuak asi ziran agertzen, batez be aretazan. Eltzea asko kostetan zan itsaslabar sakon baten. Leku gatx orretara joan bear zan gopuen bila. Ala eta guzti, Matxintxoren aita eta osaba, ez ziran agertzen.

Eun eta amazortzi desagertu ziran ezbear aretan eta zortzi besterik ez ziran bizirik atara. Alargun eta umezurtz larregi geratu zan erri txiki aretan, tristurak eta etsipenak baltzitu eban erri txiki aretan...

Pasatu ziran urteak eta Matxintxo bederatzi urteko gizon koxkorra biurtu zan. Amak bera zala etxeko gizona esaten eutson eta olan portatu bearra eukon, etxeko gizon'lez. Gosea be pasatu zan lenengo urteetan, baina urdailak betetzen asi ziran, batez be barnekaldetik etozen jakiengatik. Baserriek emoten eben jaten, erria itxasontzi barik geratu zan-eta.

Zapatu goiz eguzkitsua zan, eta bat-batean erriko ezkilak jotzen asi ziran. Inork ez ekian zer gertatzen zan, baina jendea arrapaladan asi zan ara eta ona. Itsaslapurrak! oiukatzen eben batzuk, orrela minutu gutxiren buruan erria ustu egin zan eta ez zan arimarik be ikusten.

Matxintxo geratu zan bakar bakarrik, inork ez ekian bere leku eskutuan. Sarri egoten zan bertan aita eta osabaren zain. Itsasoari izketan pasatzen ebazan orduak eta egunak. Ez eutson gorrotorik itsasoari, baina bein eta barriz galdetzen eban: Zergatik ez dira aita eta osaba agertzen? Nora eroan dozuz? Ni be joan neiteke orra inoz?

Matxintxoren ama, zoroen parte ibili zan umearen bila, baina ez eban aurkitu. Bitartean, itsaslapurrak lur artu eben eta errirantz abiatu ziran.

Errian ez zan inor ageri eta zurtz eginda egozan itsaslapurrak. Alako baten Matxintxo azaldu jaken.

IPUIN-SARIKETA

– Kaixo, nondik zatoze? Galdetu eutsen Matxintxok.

– Urrunetik oso urrunetik. Erantzun eutson kapitaina zanak.

– Ikusi al dozuez nire aita eta osaba zatozien lur eremu urrunetatik? Bota eutsen Matxintxok.

– Ez ume, gu gatozen lekuetan ez doguz zure aita eta osaba ikusi. Esan eban kapitainak.

– Nola dozu izena?

– Nik Matxintxo, eta zuk?

– Ni, William Drake deitzen naiz. Bota eban kapitainak itz egiteko azentu arraro bategaz.

Eta orrela joan dira, beste geiago barik? Alkateak.

– Ez, neuri be eurokaz joateko eskatu deustie, baina ezin nebala ama bakarri utzi esan ostean, bakean utxi eta alde egin dabe.

– Baina zelan otu aal jako alako zeozer ume kokkor bati? Erria zoritxar batetik salbatu dozu. Ez dakigu zelan eskertu egin dozuna, -esan eban alkateak.

– Matxintxok bitartean... Baina alkate Jauna, guzurrik ez dot esan. Erria ez al dago gaixorik? Danok ostendu zarie. Inork ez dau aurpegirik emon. Beldurra nagusitu jako berbeari eta mututasuna biurtu da jaun eta jabe. Ez al da isurritea bezain gaixotasun txarra, beldurra?

Alkateak ez ekian zer esan. Mutu egoan mutikoaren arrazoiaren aurrean.

– Zu zara beldurrik erakutsi ez dauan bakarra, gaixotasunik bakoa, osasuntsua, eta orrek salbatu gaitu. Esan eban negar malkotan alkatearen ondoan egoan andratxu batek.

– Konfidantza izan bear dogu geure buruarengan, ezin dogu fedea galdu eta utsune ori beldurrez bete. Erri onek asko sufritu dau eta geure artean ez dagozanakatik adoretzu jokatu bear dogu, adore ori beraiei zor deusegulako... esanaz, Matxintxori negarrak urtetan eutson.

Arrazoa du gazte onek, -esan eban bai batak eta besteak. Gure artean ez direnen izenean mintzatu da, -esan eban beste batek.

Matxintxoren esanak kontuan artu ziran, eta beldurra zorientasunagatik ordezkatu zan. Eguzkia joaten zan bokatzean, jende ugari egoten zan begietan dirdira sakon bategaz itsasoari begira. Falta zirenen oinazea, itsasoak berak leuntzen eutsen. Itsasoaren berbak entzuten ikasi eben. Orduan, eta bakarrik orduan, askatu ziren barruan eroien pisu astun aretaz.

Asier Legarreta Legarreta

ORTZIAN

Egunsenti ederra agertu zan ortzian, lilluraz jantzirik, a zan bikaintasuna... urdintasun guztia izarrez beterik.

Gabaren gau erdian zeru-lurrak ixilik aunditasunpean, ta izar doatsuak Jaungoikoa gorensten edertasunean.

Lurra zerura adi izar edertasunez erdi zoraturik, a zan eder-giroa maitasun gozoenaz guztia ondurik.

JAKINTZA

Jakintza bikaiña da zelai orlei artean dizdiz ederretan, jakintzak urrea dau eguzki oriaren printza alaietan.

Jakintza zabal zabala itxas urdiñez dago edertasunetan, jakituri almenez aidean aurkitzen da urrezko aizetan.

Itxasoa gogo onez janaria eskeinka aurkitzen da b

PAULIN

DR. LIBINGSTON

LENENGO URTEAK

Dabid Ligingston 1813n. urteko epaillaren emeritzagarraren egunean jaio zan, Eskozia'n, protestanteen sendian. Txiroak ziran eta zazpi seme-alaba janari-eske.

10 urtekoa zala asi zan lanean algodoi-lantegi baten egunean 14 ordu lanean egitekotan.

17 urtekoa zanean osagille ikastera joan zan eta 1840n. urtean amaitu eban goratasun aundiakaz.

20 urtekoa zala biurtu zan bere fedea sakonago bizi izatera.

MISIOLARI ETA LURRALDEEN IKERTZAILLE

Barruan berak somau eban deia, misioi-lurretan Barrio Ona zabaltzeko zan eta orretarako sartu zan protestanteen artean laikoa dauken misioi-alkarte batera. Bere guraria Txina'ra joatea zan, baiña Afrika'ra bialdu eben.

1842n. urtean Afrika'n barrurago beste ostera bat egin eban. Bera bakarrik joan zan eta Kalahari basarmortua igaro eban. Barri Ona zabaltzen eta gaisoak osatzen.

LEIOEN ARTEAN BAKARRIK

Beste ostera bat egin eban Afrika'n barrurago eta leio-talde bat aurkitu eban. Berak entzunda eukan leio bat il ezker besteak iges egiten dabela Ori egin nai izan eban!

Baiña bere gaiñera jauzi egin eutson leoi batek eta berak izkilluagaz zauritu egin eban, baiña leoi jaso egin zan eta barriro gaiñera etorri jakon eta besoan aginkadea egin be bai. Urrean egoan lagun baten tirokatu eban fusillagaz eta oneri be leioiak aginka egin eutson. Beste leoi bat be zauritu eban.

Libingston'en eskoiko besoa beti egoan miñez eta txarto, ezertarako-ezean. Atzera etorri zan lagunakana.

EZKONTZEA

Ezkondutxo be egin zan 1884n. urtean. Eta ezkontzako ibillaldia be egin eban idiakaz burdi baten, baiña 300 km. eginda.

Gero Robinson'en antzera jokatu eban, aberatsai kendu txiroai emoteko. Lanera be sartu zan, lenengo ogia egiten, gero kandelak egiten, geri jaboia egiten, eta batera Barri Ona zabaltzearen lana egiten eban. Gogorra zan bizitzea baiña zoriontsu bizi zan.

AFRIKA'N

1852n. urtean emaztea ta seme-alabak Afrika'ra eroan ebazan baiña bera sortalderantz sartu zan 1856n. urtera arte. Jeografiko Errege-Alkarteak urrezko domiñea emon eutson.

1856n. urtean barriro sartu zan Afrika-barrura. Apirillean emaztea il jakon eba berak lan barri bat asi eban. Jopuak edo esklaboak askatsearena. Orretarako eskaria egin eutson Portugal'eko erregeari baiña onek Inglaterrako erregeari eskatu eutson Libingston aterateko Afrika'tik eta ori egin eban. 1864n. urtean etxean dauka-gu.

Baiña laster joan barriro Afrika'ra, oraingo onetan Zanbeze'ra, Kongo eta Nilo ibaien iturrien billa (1866). Gero lurralde geiago aurkitu ebazan eta lurraldeko biztanleak aurka jarri eta lantza bat jaurti eutsoen samara. Geroago zugatz bat jausi jakon gaiñera.

Libingston geroago ta gaisoago egoan, oiñetan zauriak eukazala, gorputzean sukarra... Gaiñera arabiar batzuk eukazan osagaiak kendu eutsoezan eta beretzat gertu egoan korreoa be bai.

STANLEY LAGUNTZAILLE

Olako egoeran lau egun igaro ebazanean bere antzekoa zan Henry Stanley iparrameriketarra joan jako bere billa, bizi eta zan be ziur jakin bagerik eta onek ikusi ebanean, beste bagerik, auxe izan zan agurra:

“Libingston dotorea, uste dot!”

1872n. urtean biak aurrera jarraitu eben. Tanganikara be eldu ziran, baiña Libingston litera baten eroien.

ERIoTZEA

1873n. urtean, orrillaren lenengo egunean, Stanley'k zarata bakan bat entzun eban. Urreatu zan eta bera aurkitu eban belauniko eta otoitzean ba'lego lez. Ildago egoan. Gorpua enbalsamatu eben bertakoak ekien eran, gatz asko botata, 14 egun sikatzen euki eta gero Zanzibata'era. Bederatzi illebeteko bidea zan, 1.500 km.

1878n. urteko jorraiaren 18n. egunean gorpua Westminster'eko eleizara eroan eben. Illetan bere seme-alabak eta Stanley be egon ziran eta Stanley auxe esan eban: “Berak biurtu nindun, ori billatu bagerik”.

OLAZAR'tar Martin'ek

NAPOLEON

Europa batua lortzeko lenengo ekiñaldia Carolus Aundiak (Karlomagno) k egin eban, baiña arrezkero izan dira elburu ori lortzeko bide okerre jokatu dabenak. Iru aitatu doguz: Napoleon, Hitler eta Lenin.

Baiña guzti oneik bide okerretik egin dabe alegin ori, gudearen bidez laterriak menperatuta. Ba-dago beste bide bat Europa batzeko Erroma ko batzarrean asia eta urats batzuk emon dauzana, borondatezko alkartasuna nai dauana, USA ren aunditasunari aurpegia emoteko bear dan laterrien alkarte bat nai dauana.

Aztertu daiguzan iru ekiñaldi okerrok.

Napoleon en ekiñaldia dogu lenengoa.

Napoleon Kortzega n jaio zan, Ajaccio errian, 1 769n. urteko dagonillaren 15n. egunean.

1 785n. urterako amaitu ebazan ikasketa guztiak eta gudaloste ko teniente izatera eldu zan XVI Luis erregearen laguntzagaz.

Frantze ko iraulketea sortu zanean, Napoleon ez zan liberal agertu. Korsoen askatasunaren alde baiño. Laster ikusi eban beretzat Kortzega lan-leku txikia zala eta Paris eko arazoetara sartu zan eta 24 urtekoa zenerako gudalburu edo “general” egin zan. Urtenbidea begien aurrean eukan.

1 795n. urtean Paris eko matxinada bideratu eban eta urrengo urtean ezkondu egin zan Josefina gaz. Andra onek ondo ezagutzen ebazan Frantze ko gizonik aundienak eta guztien laguntzaz urte beratan lortu eban Napoleon ek gudarostearen buru izatea.

Laster asi ebazan gudaldiak eta laterriak menperatu ebazan: Auaustria, Italia, Ejipto...

Luziano bere anaiagaz, gudarostearen diktadura ezarri eban, “Consulado” izena ezarrita. Bera lenengo ta betirako konsul izatea lortu eban eta gero lurralde guztien alkarte orreri “Inperio” izena emon eutson. Bere irabazirik aundiena Austerlitz eko gudaldia izan zan (1 805).

Bere angitaritzan polizien kontrol aundi bat agiri zan. Inkisiziñoak baiño gogorragao jaurtzen eban erria. Eta laterriak bere etxekoen artean banatzen ebazan.: Napoles Jose anaiari, Holanda Luis Anaiari, Wesfalia Jeronimo ri...

Inglatera bakarrik eukan aurka eta laterri oneri blokeoa ezarri eutson.

España n ez zan guztiz ondo ibilli, gerrilleruak aurkitu ebazalako. 1 805n. urtean Trafalgar en azpiratu ebazan itxastarrak eta inglesak eta 1 808n. urtean legorrez sartu zan Napoleon España ra eta Jose bere anaia ipiñi eban errege. (Pepe Botellas ez-izena ezarri eutsoen).

Rusia ra be sartu zan eta Moscou raiño eldu be bai, baiña negua gogorra zan eta atzera egin bear izan eban: 600.000 gudaritatik 100.000 baiño ez ziran biurtu.

Aspertu zan Europa bere jokabideaz eta Leipzig en azpiratu eben eta Elba ugartera bialdu eben erbesteratuta.

Urtenbide ori okerrekoa izan zan. 1815n. urtean barriro egoan Frantze n eta “eun urteko inperioa” sortu eban.

Azkenean europatarrak gogor jarri jakozan eta Waterloo n azpiratu eben bein betiko (1 815-06-18) eta agintaritzaz iztera beartu eben. Santa Elena ugartera erbesteratuta, an il zan 1 821n. urtean. Batzuk pozoituta il zala diño.

OLAZAR tar Martin ek

BASERRIA

Jaiotetxe maitea
zugan dozu sor-miña
seme maitalentzat
seme asko dituzu
gutziz agurgarriak
zure miraritzat.

Aintzagarria zara
seme argi artean
bizia izanik,
buru eta biotza
arrigarriak dozuz
biak bat eginik,

Mundura joan dira
zume seme-alabak
euskal izateaz,
zure izen ederra
ongi zabaldu dabe
euren egiteaz.

PAULIN

OTSAGI – SARAIZU

1974 urtean, LATXAGA Jaunak idatzi zuen “Jakara oinez Naparroan zear” liburua. Auxe idatzi zuen Otsagiz: “Otsagi izenarekin batean, Etxemendiren leloa zetorkidan belarrira, lelo sakona, samiña, baiñan itzak ezaizkit atsegin. Iruñako egunkarietan, lantxo bat argitaratu nuen lelo oneri buruz, eta orduko itzak ez dute garrantzirik galdu. Danak ba dakigu Etxamendi Ipar Euskalerriko abeslari onenetakoa dela. Asko abestutzen du ta oso ongi, pozaren pozik alboetako bere azkeneko abestiak entzun nituen.. Ezin aztu eta belarritik ezin kendu, “Otsagabia” izenekoa. Negar giroan entzun dutenetikan. mingarriena. Entzuterakoan negar egin bear. Jeremias igarlearen mailakoak ditugu. Izena alaxekoa ere Naparroan dagon erri politenetakoa bat. Gaia berriz ongi aukeratua. Otsagabian gertatutakoa negargarria bai da, Saraitsuko biotzean euskal arnasa era bat galtzen.

Iruñan abesti au agertu nien napartar guztiek negar egin bear. Orain itzen aldetik, Azkonaren antzera biotza urratzen bait du. Biotza urraturik lertu egin bear. Orain itzen aldetik, kezka nagusiak agertu nai ditut. Esan bear Etxamendik gaurko Naparroa ez dula ezagutzen. Bere itz oiek ez dute egia aitortzen...”

Eta jarraitzen du; “Aita Donostiak, emen 1944 urtean jasotako lelo zarra zetorkidan belarrira “Arri, arri mandoko”... Bai Otsagabiak ba du indar berexi bat, euskal nortasun jatorra noizbait esnatuko dan eta orduan bi aldiz zoragarria deituko dugu, ba dago zenbait etxetan kezka ta zaletasuna...”

Laxtagaren ametsak bete ziren nolobait urte orretan berean ireki zen ikastola, egun, jarraitzen duena. Eta Koldo Artolak bildu ditu Saraitzuko euskararen bariantek, “Fontes Linguae Vasconum” argitaratuak.

Bainan, egun datorkiguna bertze afera bat da, XVI garren mendeko eliza berri duela. Ori mendi azpian dagoen erria dugu Otsagi, Saraizu araneke iriburua. Oso toki polita. Nafarroako egoaldeko Pirineotan, Iratí basoaren geiengoa artzen du Saraizuk, eta bertze mendi ederrak ere badituena, Abodi bezalakoa. Eguberriak arro ospatu dituzte otsagitarrak, aurtin berri baidute elizaren teilatua. San Juan Ebanjelistaren elizan bost ilabete egon dira Orhipean bertako olategiko langileek lanean. Goratu dute lenagoko teilatua, zarturik zegoena, eta Izitzko zerratokiko abeto zurez estali dute eta barrango



bobeda ere konpondu. Obra osoa, 450.000 euro balio izan du, eta “Principe de Viana” erakundeak, Iruñeko Arzapezpikuak eta bertako jendeek ere lagundu dute finantziatzen. Abenduaren ogeitalaua izan da ospakizun eguna, Olentzero etorri aurretik.

Egun onetan zeuden Nafarroako Arzapezpikua, Francisco Perez, bere idazkari den Pello Orbegozo, Gregorio Martínez eskualdeko bikarioa, Tomás Mikele Napal, Erriko seme eta apeza. Erretoreak berriz zion, inagurapenarekin oso pozik zegoela, eta otsagitarrak “beraiek zirela elizeko arri biziak”.

“Attegi” abesbatzak, Jesús Eseberrik zuzenduta kantatu zuen ospakizunean eta artzapezpikuak zoriondu zituen ain ongi egiteagatik. Baita ere Muskildako Ama Birjiñaz oroitu zen, eta bedeinkapena eman aintzinetik erriko aurrak igo arazi zituen aldarera.

Oitura den bezala famili batek ogia zatitu eta banandu zuen denen artean, oraingo onetan Artzapezpikuak bedeinkatua. Azkenean, Artzapezpikuak agurtu zituen erriko biztanleek eta bisitatu zuen 87 urteko apeza eta erriko seme den Fanzizko Barber.

OTSAGIKO KIROLARI BATI OMENALDIA

Egun orretan, eman zioten omena Xabier Eseberri Baraze jaunari, futbol- sala kirolean erdetsi du urrezko domiña. Otsagiko alkateak Juan Manuel Tohanek zoriondu zuen bere kiroltasunaz eta erriko izena zabaldu duelako, izan den toki guzietan zear. Xota delakoen taldean jokatzen duen kirolaria eskertu zuen erranez zein atsegiñak diren otsagitarrak eta zein erri polita den, denok aitortzen duten bezala.

Xole Erbiti

AMERIKETARA

Aspaldiko gauzea da gure etxe ta sendietan Ameriketatik etorriak aurkitzea: Eleizan: “Ni kolonbiarra naz”, gaisoaren etxean: “Ni brasildarra naz”, lege-gizon batek: “Ni arjentinarra naz”, ondo jantzita dagozan gizon bik: “Gu Mexiko'ko abadeak gara, gotzain batek: “Ni emengoa naz baiña Panama'tik etorri naz”, emakume batek: Urteak dira emen gagozela, baiña izaten benezuelatarra naz”, beste batek kalean: “Ni Puerto Riko'koa naz”.

Baiña urte batzuk dirala euskaldunak ziran ameriketara joaten ziranak: politikuak erbesteratuta, bigarren anaiak etxea anaiarena zalako, erlejiñoak eraginda joanak... Gure aita be Argentina'tik ibillia zan eta etorri be egin zan baiña ez dirutsu. “Joan eta etorri kapela gorri”.

Urrengo idaz-lanetan emendik ara joanak aitak doguz, azkenengoetatik asita. Jakiña da Kolon'ek bere ontzi baten euskaldunak eroiazala eta oneik matxinada bat sortu ebela bideko leguak berak esanak baiño geiago ziralako, eta gero, urterik urtera beste asko joan ziralako, asko eta ospetsuak, baiña ori Saski Naski izena eukan gure aldizkarian aztertu gendun. Orregaitik oraingo onetan azkenetik asiko gara, gero lenagokoak gogoratzeko.

Euskaldunak azkenengo guda galdu genduanen (1937n. urtean) asko izan ziran ara joanak, 1937n. urtetik 1947n.'era 5000 bertaratu ziran.

Mexiko'n Belaustegigoitia'tar Frantzisko euskaldunen laguntzailleak erakunde bat sortu eban “Hogar” izenagaz eta Benezuela'n erbesteratuak eurak sortu eban “Asociación vasca de socorros mutuos” izeneko alkarte laguntzaillea.

Orduko Eusko Jaurlaritzak berak be Ameriketara eukan bere etxea 1941n. urtetik 1946n.'era.

1941n. urtean eldu zan ara Jose Antonio Agirre lendakaria. Europa guztitik ibilli ondoren (irakurri “De Gernika a Nueva York pasando por Berlin” bere liburu ederra) Rio de Janeiro'ra eldu zan. Gero Uruguai'n eta Arjentina'n egin ebazan egotaldiak eta azkenean York Barri'ra eldu zan eta bizi al izate4ko erderazko irakastaldiak emon bear izan ebazala entzun dogu.

Geroago batu jakozan beste jaurbide batzuk: Monzon, Nardiz, Aznar, Toyos... Agirre'k lan aundia egin eban York Barri'n: Eusko Alkarteak batu, jakintza indartu, errepublikearen arazoak bideratu, kristiñau demokrazia alderdia sortu (au gero eskoitar españolen eskuetara jausi da) eta, batez be, Laterri Alkartuen (Aliados) gogoia sartu Ameriketara, Ludiko II guda etorriko zala ikusita geroa gertatzeko.

1936n. urte beratan eldu ziran Ameriketara lenengo euskaldun erbesteratuak, geienak zarrak eta an senideak eukazanak. Urte orretan zemendian eldu ziran Arjentina'ra Naparroa'ko Munarriz eta Gipuzkoa'ko Barrena.

1937n. urtean, gure lurra landu genduanen, eldu zan Ameriketara erbesteratuen bigarren uriolea: Gudariak, Jaurlaritzaren langilleak... Euren kontura joan ziran etxeakoak lagunduta: Laterri Batuetara, Mexiko'ra, Kolonbia'ra, Benezuela'ra... An laster sortu ziran eurai laguntzeko taldeak: Comites pro Euzkadi York Barri'n eta Buenos Aires'en, Delegación del País Vasco Mexiko'n. Intxausti'tar Manuel Maria'k sortu eban “Comité de secours aux basques”, Frantze'ko eleiztarrak lagun ziralako...

1938n. urtean Jose Antonio Agirre'k Ordezkaritza bialdu eban Ameriketara, bat Irala'tar Anton buru zala York Barri'ra eta urrengo urtean Jon Bilbao'gaz Boise'ra, Txile'ra ta Uruguai'ra. Oneik Eusko Deia aldizkari entzutetsua sortu eben, Ameriketara euskaldunen abotsa izan zedin. 1978n. urtean oraindiño bizi zan Karakas'en.

1938n. urtean Benezuela'ko Gobernuagaz ituna egin zan, euren aldetik Gonzalo Salas buru zala. Liburuska bat argitaratu eben: “Inmigración Vasca para Venezuela” eta katolikuak eta bake-gizonak asko joan ziran.

Gorabeera guzti oneitan lan txalogarria egin eban, batez be Arjentina'n “Emakume Abertzale Batzak”.

OLAZAR'tar Martin'ek

URBIDAK / AKUEDUCTOAK



Segobia'ko ur-bidea (Akueduktoa).

Erromatarrek ia dana artu eben Grezia'tik. Eurak gudarako eta legeak egiteko ziran trebeak.

Ba-dagoz oroigarri diran eraikuntza edo monumentu batzuk: Esaterako arkuak, uguztegi edo baiñu-lekuak, bideak, irudiak eta abar.

Baiña erromatarrek itzi euskuen eraikin oroigarri bat urbideak dira, euren izkuntzan akueduktoak. Segobia'n dago bat ederra.

Or erromatarren laburtasun bat agertzen da. Eurak ez ekien ontzi alkartuen legea (vasos comunicantes), ez ekien urak asieran euki eban goierea barrero lortzen dauala, odi baten barruan eroan ezkero. Era ori ez ekielako egin bear izan ebezan olako eraikuntza arrigarriak, arkuak akuen gaiñean dirala, lurraren gaiñetik ura eroan bearrean.

Sarritan fisikan ikasten diran gauzak alperrekoak dirala uste izaten dogu, baiña ikasi dagigun erromatarren ezjakin orretatik eskolatuak izateak daukan balioa.

OLAZAR'tar Martin'ek



Kalagurri'n Kintiliano'ren oroimenez irudia.

ABRAHAM-MOISES

Gizaundien artean aundienetariko bat dogu Abraham. Kaldea'ko Ur errian jaio ta asi zan, baiña txikitatik zan Jaungoiko bakarraren jarraitzailea eta Ur bere errian jainko asko gurtzen ziralako, bere barruan Jainko bakarraren deia zomau eban: “Urten egizu zeure erri eta etxetik eta ZOAZ neuk esango dautzudan erri batera. Ikusten dozuz zeruko izarrak? Ikusten dozuz ondartzako areak? Ba zure ondorengoak izarrak eta areak baiño ugariagoak izango dira”.

Urten eban Abraham'ek bere erritik eta Kanaam lurraldera joan zan.

Erriak sortu ziran aldia zan, K.a.'ko bi millagarren urte ingurua, artzaiñen sasoi. Makpelá dolmen bat da.

Kanaam'etik Ejipto'ra joan ziran bere ondorengoak, goseak eroanda eta Ejipto'n ugaritu ziran, Faraon'em menpean. Ondoren orretatik datoz gaurko iru erlejiño. Judatarrek, Islan'darrak eta kristiñauak. Judatarrek asko ez dirala jakiñik, kontuak egiten ba'doguz, milla milloi baiño apur bat gitxiago dira islandarrak eta beste milla milloi baiño geitxiago kristiñauak, bien artean bi milla milloi, mundurik erdia. Orra or Abraham'eri Jainkoak sortu dautson erri ugaria!

Baiña Abraham'ek eta ondorengoak erria eratu bagerik itzi eben eta barriro entzun eban Moises'ek bere barruan Jainkoaren deia: “Entzun dot Ejipto'n ni Erriaren garrazia. ZOAZ eta atera egizu nire erria Faraon'en menpetik”.

Eta atera eban Jaunaren Erria Ejipto'tik Moises'ek. Ondo agertzen dau ori Charlon Heston zinegilleak “Amar Aginduak” bere filmean.

Baiña Ejipto'ko Aginterria mundu aretako indartsuena zan eta ez zan gauza erreza izan Moises'en egitekoa.

Azkenean atera eban eta basamortuan lortu eban Jainkoaren Erria erri izatea, bere mundu-ikuspegi bereizia eukitea, eta gaur arte iraun daben legeak berari ezartea. Ez dau orrenbeste ikutirik izan Sortaldeko mundu onetan beste erri batek, erromatarrek eurak be ez. Moises izan zan edestia aldatu eban gizaundia eta aldatu be onerako.

Noz urten eban Erriak Ejipto'tik? Ez dakigu ziur baiña antza dagoenez, K.a. XV gizaldian izan zan eta Ejipto, amarkada batzutarako beintzat, makalduta itzi eban jazokizun orrek, lotsatuta geratu ziran eta orduko edestilariak Israeldarrak erbesteratu egin ebezala diño.

Moises Ejipto'n bertan azi zan jakintzaz ondo orniduta, baiña berak naiago izan eban erritarren joputzagaz bat egin. Emen Bibliak Horeb mendian Moises'ek ikusi eban sasiaren jazokizuna dakar, sutan egoan sasia, baiña iñoz erreten ez zana. Urreratu zan Moises eta Jainkoaren deia entzun eban: “ZOAZ ater atera nire erria Ejipto'tik”.

Urten eben ba, basamortura eta eldu ziran Sinai mendira. Antxe emon eutsozan Jainkoak amar aginduak erriarentzat, gaurarte balioko dira amar aginduak, gaurko sortaldean agindu bizi-biziak doguzanak.

Berrogei urte egin ebezala basamortuan diño Bibliak, baiña ez aitzu zenbaki ori, berrogei, sinbolikoa dala.

Bidean izan ebazan matxinaddak: “Obeto gengoan Ejipto'ko azak eta porruak jaten emen gosez ilten baiño”. Buru ziran Dan eta Abiron lurak iruntzi ebazan.

Legeak edo Torah ori liburuetan idatzita geratu zan, Bibliaren lenengo bost Liburuetan:

Aziera edo Jenesis lenengoa. Onek munduaren asiarea agertzen dau, baita Israel'ena be, eta jokabide garbia ta Jainko bakarra iragarten dauz.

Bigarrena Urteera da eta onek Ejipto'ko jopu-egoera agertzen dau eta 21-23 ataletan Amar Aginduak iragarten dira, joputza iñoz ez dala izango zazpi urtetik gorakoa eta beste lege batzuk zeaztuten dauz. Erriak ospatuko dauzan jaiak be or agertzen dira.

Torah'en Irugarren liburua Lebitiko da eta jauretzeko serbitzaille ziran Lebi leiñukoen egitekoak idazten dauz, osasun-aginduak be bai (janari garbiak eta zikiñak), seksu aginduak be bai: Senideakaz ezkontea debekadu, seksu aginduak be bai: Senideakaz ezkontea debekadu, seksu bardiñekoazko ezkontzea eta piztiakaz seksu-artu-emonak galazo... Lurraren jabea Jainkoa dala diño eta ondorenak ateraten dauz, esaterako jubileoa, eta bedeinkapenak eta madarikapenak dakaz.

Laugarren liburua zenbakierna da eta lenengo leiñu bakoitzean zenbat diran agertzen dau (aspergarria da), basamortuko bizimodua, eta Lur-eskiñiaren lenengo eskuratzeak.

Bostgarren liburua Deuteronomia edo Bigarren legea da eta Moises'en berbaldi lez agertzen dira esandako gauza asko. Shema deritxen berbaldietan agertzen dira lege guztiak: “Entzun Israel...» Moises'en eriotzeagaz amaitzen da.

Ona emen Torah orren aundi-aundia:

1) Gizona jarten da danaren gaiñean, Jainkoaren irudi eta antzeko dala.

2) Beste kosmogonietan agertzen dairan mitoak eta Jainkotxuak alboratzen dauz, jainkotxu orreik, beste errietan gurtuak, izadiaren gauzak dirala esaten da, ez Jainkoak, esaterako izarrak.

3) Mundua ona dala diño, asiera liburuan bertan eta lana ez da agertzen zigor lez eginbear lez baiño.

4) Edestia ontzat artzen dau, jazokizun okerrak ukatu bagerik, esaterako Kain'ek Abel iltea.

5) Jainko bakarra onartuaz, oitura onak ezarten dauz erlejiñoaren ikuspegitik. Irudiak egitea debekatzen dau, idolatria alboratzeko. Gure salbamena Jainkoaren ontasunetik dator.

Lan txalagarria, benetan Moises'ek munduarentzat, gaur arte, bete eban zeregiña.

OLAZAR'tar Martin'ek

ERKULES'EN AMABI LANAK (Erroma)

Antxiñako Grezia'n gizonik ospetsuena Erkules Jupiter'en semea zan, indartsua ta kementsua zalako.

Arerio aundi bat euki eban bizitza guztian, Juno, Jupiter'en emaztea. Onek ezin eban begi onez ikusi Erkules Alemanen Jupiter'en lenengo emaztearen semea zalako.

Erkules umea zala suge bi bialdu eutsozan seaska'ra Juno'k, baiña Erkules'ek, umea izan arren, bere eskutxu-akaz ito egin eban sugea.

Erkules gizon egin zanean zoratu egin eban Juno'k eta zoroaldi orretan bere umeak il ebazan. Ez eban okerkeri geiago egin Minarba'k loaldia emon eutsolako, zoroaldia osatu-arte.

Osatu zanean Erkules prest egoan egindako kalteak ordaintzeko, baiña Argos'ko erregea zan Euristeo bere anai-ordeak esaten eutson guztia egiten eban Erkules'ek. Ez ekian Euristeo ta Juno biak bat eginda bere aurka egozanik. Bien artean aukeratu ebezan amabi lan gataxak Erkules'entzat.

1.º LANA: NEMEA'KO LEOIA ERAIL

Lan ori agindu euetsoanean, eldu zan Nemea'ko zelaira eta agertu zanerako eraso eutson leoiari gezi zorrotz bat jaurtiaz, baiña geziak ez eban zulatu leoiaren narrua. Orduan atzamarrakaz samatik eldu eta ito egin eban.

2N. LANA: ARGOS'KO LERMA'N ERENSUGEA ERAIL

Lerma'ko lurralde zingiratsuan bederatzi buruko erensuge bat egoan eta ango biztanleak bildurrez bizi ziran. Euristeo'k erensuge ori ilteko agindua emon eutson Erkules'eri.

Kementsu joan zan Erkules Erensugearen billa eta onek bere kobazulotik urten ebanean Erkules'ek buru bat ebagi eutson, baiña arrituta ikusi eban beste buru bi sortu jakozanela. Eta bederatzigarren burua illezkorra zala ikusi eban. Orduan, koba-zuloaren aurrean sugariak batu ebazan eta onei sua emon eta erre ebazan buru barriak. Gero artu eban arri aundi bat eskuetan eta bederatzigarren buru-gaiñera bota eutson. An dago arri aundiaren azpian erensugea betiko.

3N.LANA: URREZKO ADARDUN BASAUNTZAREN JABE EGIN

Urtebete egin bear izan eban Erkules'ek urrezko adarduna zan basauntza aurkitzeko, baiña onek buztinëzko anka bizkorak eukazan eta beti iges egiten eutson.

Alako baten jo eban gezi bategaz eta ez eban bide asko geiago egin.

Artu eban lepoan basauntz eder ori eta eroan eban Euristos erregearen aurrera.

4N. LANA: ARKADIA'KO MENDIAN BASURDEA ARRAPAU

Arkadia'ko Erimanto mendian basurde aundi bat ebillen eta au arrapatzera bialdu eban Erkules Euristeo erregeak.

Ez zan bildurtu Erkules goietako edurrak ikusi-arren, basurdearen oñatzai jarraitu eutsen, eta urreratu zanean, basurdeak eraso egin eutson baiña Erkules'ek orretarako eroain sare bat bota eutson gaiñera eta orrelan bizirik arrapau eban basurdea eta, sare ta guzti, bizkarrean artuta, erregearengana eroan eban.

5N. LANA:AUJIAS'KO ERREGEAREN KORTAK GARBITZEA

Ogeta amar urtean egozan azpiak atera barik Aujias'ko erregearen kortak. Iru milla abare batzen ziran korta orretan. Korta ori garbitzeko lana emon eutson Erkules'eri Euristo erregeak..

Ingurutik igaroten ziran ibai bitako urak atera ebazan Erkules'ek euren bidetik eta korta aretara bideratu., orretarako bere indar aundiagaz arri sendoak alboetan ipiñita. Ur areik garbitu eben Aujias'en kortea.

6N. LANA: ESTIUPALE'KO EGAZTI GIZA-JALEAK

Estiupale izeneko zingira baten bizi ziran giza-aragi jale gogotsuak ziran egaztitzar batzuk. Eta orreik iltera bialdu eban erregeak Erkules.

Minerba'k emondako dunba batzukaz botaten ebazan egaztitzarrak baiña azkenean geziakaz zaurituta boten ebazan.

7N. LANA: KRETA'KO ZEZEN GAIZTOA ARRAPAU

Zezena oso ederra eta indartsua zan. Minos Kreta'ko erregeari emon eutson Neptuno'k opari lez eskintzeko, baiña Minos erregeak ain ederra zala ikusi ebanean ez eban biotzik izan ilteko.

Neptuno'k zezena bizirik ikusi ebanean asarre aundia artu eban eta zezen ori basati biurtu eban, ugarte aretako zigorra izan zedin..

Erkules'eri eskuratu eutson Euristos erregeak arazo au be.

KONDAIRAK

Alegin asko egin-ondoren eskuratu eban Erkules´ek pizti ori eta bizkarrean eroan eutson Euristeo´ri.

8N. LANA: TRAZIA´KO ERREGE DIOMEDES´EN BEORRAK

Trazia´ko errege zan Diomedes´en beorrak ekartera bialdu eben urrengo.

Diomedes´ek bere beorrai giza-aragia emon eutsen jaten eta basati bi urtu jakozan.

Erkules´ek eskuratu ebazan beorrak eta eskutik eroi-azan, baiña atzetik zaldi askoren zaratea entzun eban. Begiratu eban eta Diomedes bera zan, gudari-talde bate-gaz. Bakarra izan arren guztien aurka guda egin eban Erkules´ek eta, erregea il-ondoren, irabazi egin eban.

Askatu ebazan beorrak eta erregearen aragia emon eutsen jateko. Jan eben, eta arrezkero gizakien lagun-tzaille izan ziran.

9N. LANA: IPOLITA MARIGIZONEN ERREGIÑEAREN GARRIKOA

Ipolita marigizonen erregiñea zan eta Marte´k esku-erakutsi lez, indar aundiko garriko bat emon eutson eta garriko ori ekartera bialdu eban Euristos´ek Kapadozia´ra Erkules.

Emakumeak ziran an nagusi eta gogorkeriz menperatzen enbezan gizonak. Emakumeak oso ausartak ziran eta gudarako be gertatzen ziran. Ez zan ba lan erreza Kapadozia´ra joan eta garriko indartsua arei kentzea.

Ipolita´k arrera oso ona egin eutson eta egun zoragarriak igaro ebezan. Eta Erkules´ek alde egiteko asmoa agertu ebanean, garriko miragarria eskiñi eutson Ipolita´k oroigarri lez.

Baiña Juno ez egoan lo eta asarrean jarraitzen eban eta bastarrak nastau ebazan Erkules´ek bidea galdi egian. Orretarako Juno´k marigizonen antza artu eban eta bertakoai esan eutsen Erkules´ek Ipolita erregiñea gogorkeriz eroiala. Juno´k berotu eban bertako jentea eta batu ziran Erkules´en ontzi-inguruan, eraso egin eta ontziaren jabe egin ziran. Erkules´ek uste izan eban Ipolitak iruzur egin eutsola eta il egin eban erregiñea, kendu garrikoa eta Argos lurraldera biurtu zan garrikoa eskuratuta.

10N. LANA: JERION GIZAUNDIARI IDIAK KENTZEA

Eutia´ko ugartera bialdu eben Erkules Jerion gizaundiaren idiak eskuratu eta ekartera.

Itxasoz egin eban ibillaldi aundi bat Eutia´ko ugartera eltzeke. An bizi zan gizaundia burubiko txakur bat lagun ebalu, bere abere-taldea zaintzen..

Erkules´ek, lurreratu zanean aitz aundi bi ipiñi ebazan zutunik, ondorengoai araiño eldu zala gogortzeke. Antxiña Erkules´en arriak esaten eutsenai, gaur Jibraltar´eko itxas estua esaten dautsee.

Gizandia menperatzeko burruka gogorra egin bear izan eban Erkules´ek, burubiko txakurra il-ondoren, baiña idirik onenak artu ebazan eta biurtu zan Euristeo erregearen lurraldera.

11N. LANA: ESPERITARREN URREZKO SAGARRAK EKARRI

Esperitarren lorategi baten urrezko sagarrak egozan baiña mamu txar batek zaintzen eban lorategia. Eta lorategi orretara sartzeko bidea zeru sabaia bizkar-gaiñen eukan Atlas gizandiak baiño ez ekian.. Zelan sartu barrura mamuak ikusi barik?

Erkules lkustaldi bat egitera joan jakon Atlas´eri eta esan eutson ia ekarri al izango ete ebazan Esperitarren ortuko urrezko sagarrak.

Baietz erantzun eutson, ekarriko ebazala Atlas´ek berak norbaitek zeru-sabaiari eutsi ezker. Erkules´ek erantzun eutson Atlas´eri, berak eutsiko eutsola zeruari Atlas´ek sagarrak ekarteko joan-etorria egiten eban artean. Orrelan egin eben.

Atlas gizandia sagarrakaz etorri zanean, ez eban artzen bere gaiñean zerua eta esan eutson Erkules´eri, bera joango zala Euristeo erregearengana sagarrak eroaten

Estu aurkitu zan Erkules eta estualditik urteteko zur jokatu bear izan eban: Atlas´eri esan eutson bizkarra minberatzen asita eukala eta bigungarri bat artzeke Atlas´ek berak eutsi ekiola zeruari. Artu eban Atlas´ek bere bizkar-gaiñean zerua eta Erkules sagarrak artuta Euristeo´rengana joan zan.

12N. LANA: LURPERA JOAN ETA ZERBERO TXAKURRA EKARRI

Lurpeko erreñuan Pluton´ek Zerbero txakurra eukan atezain. Txakur ori ekarteko agindu eutson Euristeo´k Erkules´eri.

Urreratu zan Erkules Pluton´engana eta garbi esan eutson zein zan egin bear eban lana.

Txakur ori artu eta eroateko baimena eskatu eutson.. Emon be egin eutson, baiña esku-utsean, ezelako tresna barik eroatekotan.

Jaon zan Erkules Zerbero txakurrengana eta atzamarrakaz samatik oratu eutson eta burrukan ibilli ziran. Erkules´ek nekatu-erazo eutson txakurrari eta besoetan ekarri eban Euristeo´ren aurrera. Euristeo´k naikoa zala esan eutson eta joan zan barriro Erkules txakurra besartean ebalu., lurpera eta Pluton´eri emon eutson txakurra. Eta Pluton´ek sarrerea zaintzen ipiñi eban.

Orrelan bete ebazan Erkules´ek bere amabi lanak eta orregaitik gaur be esaten jako ekintza gatxen bat bete daunari:”Erkules´ek lako lanak egin dozak”.

OLAZAR´tar Martin´ek

ILLARGIA TA LURRA

Oraintsura arte, Pluton'en ondoan Karonte aurkitu-arte, iretargia izan da izarbel-ondorik edo sateliterik aundiena.

Oraintsu jakin da illargia nondik sortua dan: Lurrak asteroide aundi baten golpea artu eban eta zati bat urrindu jakon: Illargia. Orregaitik lurrak eta iretargiak gai bardiñak daukez.

Lurretik illargira 384.000 km. dagoz eta beti aurpegi bat erakusten dausku, atzeko alde ez dogu inoz ikusi.

Oraintsu esan da izotza dagoala illargiaren polo edo ardatz.ertzetan (1998) baiña itxura baten leorra da. Ura ba'lego errezagotz litzake an talde bat bizi izaten ezartea.

Galileo'k illargiko leun-une aundiai itxasoak deritxe, baiña ez uste izan lurreko itxasoan antzik daukenik: 1632n. urtean berak esan eban leun-uneak zirala. Baiña gaur be itxasoan izenak daukez: "Mare serenitatis", "Oceanus procellarum" edo koperniko, Kepler naiz Ticho sumendi agoak.

Itxaso oneik dira illargiko zati bat, beste bat dira sumendiak.

Zer-ikusi asko dagoz or izar-zaleentzat eta teleikuskin txikiak baiño ez dira bear.

Iretargiak bere illea dauka, 29,5 egunekoa. Iretargi barri batetik urregora arteko bitartea da: Barria, ilgora, osoa ta ilbera. Fase oneik sortzen dira eguzkiak zein zati argitzen dauan ikusita.

...

Lurrak eragin bi dauz, bata bere buruari biraka edo errotaziñoa (24 orduan) eta ortik sortzen dira gure gabak eta egunak; eta bestea bide-egillea edo traslaziñoa eta ortik sortzen dira 365'25 egun eta lau urte-arokak. Au eguzkiaren inguruan bira osoa da. Emen orduko 100 000 km egiten dauz lurrak eta 910 milloki km egiten dauz. Elipse baten marrazkia dauka bide orrek.

Lurrak bere bidea egiteko erlojuaren aurkako bidekeria artzen dau eta bide orreri eliptika deritxo eta onen antzeko bidea, aundiagoa eta txikiagoa egiten dabe beste izarbelak.

Bide orretatik sortzen dira lau urte-arokak: Negua, udabarria, udea, udagoiena. Orrek sortzen dira lurraren ardatza ez dagoalako artez eliptikaren gainean. 23'5 graduko okerra dauka eta oker onek egiten dau eguzkiaren argia ta beroa zuzen edo alboz etortea eta toki bakoitxean otza edo beroa izatea.

OLAZAR'tar Martin'ek

KALAGURRI

Erromatarrak izan genduzan artu-emonak naikoa onak izan ziran, batez be mendietatik albora bizi ziran euskaldunak, Naparroa'ko Erribera'koak esaterako. Onei "Ager vasconun" edo euskaldunen soloak esaten jaken, besteai "saltus vasconun" edo euskaldunen basoak. Laburragoak ziran azkenengo oneikaz izan ebezanak.

Toki batzutan erromatarrak aurean erabilten ebezan keltak eta onei kentzen eutseena, euskaldunai emoten eutseen, orrelan jazo zan, esaterako, Berriaga mendiko gotor-lerkuagaz.

Artu-emon orreik asko ugaritu ziran erromatarrak gudari euskaldunak urte guztietan euren gudarostera sartzen ebezalako eta inoz izan dira gudari euskaldunak enperadorearen zaintzaille be.

Baiña erromatarren jakintza ondoen sartu zan lekua Kalagurri, gaurko "Calahorra" izan zan. "Kala" arabeen berbea da (Calatayud, Calazaite...) eta "urri" euskaldunen "uri".

Kalagurri onetan erromatarrak euskaldundu egin ziran, esaterako Kintiliano ospetsua, Martzial, Prudentzio... eta euskaldunak erromatartu, esaterako Jaka'ko San Lorentzo'ren sendia.

Ortik be sartu zan gure artera Jesukristo'ren barri ona, naizta askoz lenago, II gizaldian iparraldeko Elusa'n goi-gotzaiña egoan eta orretarako beste gotzain batzuk inguruan izan bear.

Izan ziran martiriak Euskalerrian, baiña ez inoz Euskaldunak erailak, erromatarrak erailak baiño, esaterako Emeterio ta Zeledonio santuak. Dezio inperatorearen aldiaren batez be.

OLAZAR'tar Martin'ek

IZARBELAK (PLANETAK)

Gure etxea dogun lurretik urten ezker, lenengo auzoa izarbelak (Planetak) eta albo-izarrak (sateliteak) doguz.

Geien argi egiten dauskuenak eguzkia ta illargia dira, eta onein urrengo Benus izarbela: Gozeko Izarra.

Marte izarbel gorria arrigarri jaku eta asko idatzi da oneri begira, bizia bertan ete dagon zalantzak dagoz. Gaur beietzera dago jentea.

Jupiter eta onen albo-izarrak edo sateliteak eguzki-inguru bereizi bat dirala dirudi.

Saturno bere eleztunakaz, zeruen edertasuna agertzeko bidea da.

Merkurio, Urano eta Pluton igeskariak jakuz.

Errez jakiten da gauetan bakoitza zein dan eta non dagon, leku ezbaridinetan egoten diralako eta dizdiz'ik ez daukelako.

Izarrak argia euren dabe, izarbelak eguzkitik artua.

Merkurio ikusteko goizaldean edo illuntzean begiratu bear dausagu, beti eguzkitik urrean dagolako ta ezin ikusi argi dagoanean. Orduetan egoten da isla-gaiñean.

Dana dago krater edo zuloz beterik. Illargiaren antzera. Lurraren erdia da neurritz.

Benus bere argitasunak salatzen dau, goizaldean naiz arratsaldean.

Merkurio ta Benus dira eguzki-inguruan barrurantz dagozen izarbel biak, lurretik eguzkira bitartean dago euren ibilbidea. Ostera Marte, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton lurra baiño kanporago dabiltz.

Merkurio ta Benus'ek bide laburragoa ta ariñagoa egiten dabe eguzki-inguruan.

Marte'ri izarbel gorria deritxo.

Jupiter da izarbel Nagusia eta bere azala argiago ikusten da, barruan mota gorri bat eta ekuador-inguruko zerrendak agirian dagoz.

Galileo'k aurkitu ebazan bere lau albo-izar edo sateliteak. Ganimedes, Io, Europa eta Kalisto Onein ibillerak arrigarriak dira.

1979n. urtean Voyager izar-ibiltariak Jupiter'en inguruan elestun bat ikusi eban.

Saturno argiz motelagoa da Benus eta Jupiter baiño. Argia beillegi-antzekoa da eta izarrak baiño dizdiz gitxiagokoa: Errez aurkitzen da.

Onein elestunak errez ikusten dira, baiña euren sasoiari oztendu egiten dira: 1995, 1996, 2002, 2010.

Urano, Neptuno eta Pluton ikustea ez erreza. Urano begiz utsez ikusi lei, baiña doi-doi. Obeto betaurrekoak artu 1977n. urtean eleztunak daukazala uste izan zan eta 1986n. urtean baieztatu zan ori.

Neptuno ezin ikusi lei begi utsez, teleikuskin aundia bear da. Voyager II'ak eleztunak aurkitu eutsozan.

2006n. urteko dagonillaren 24n. egunean erabagi eben Laterri-Arteko Izardi-zaleen Alkartean Pluton ez dala izarbela edo planeta, urriñago izarbel aundiagoak aurkitu diralako. Baiña izar-zale asko ez datoz batera.

Illargia baiño askoz txikiagoa da eta berau ikusteko teleikuskin aundia bear da.

OLAZAR'tar Martin'ek

II FELIPE

Erlejiño-aldatzaille edo protestanteen aurka, bere aita-gandik ikasita, gogorren jokatu ebana II Felipe izan zan.

Errege oneri buruz eritxi ezbaridinak aurkitzen doguz. España'tarrak geienak santutzat dauke baiña bere arerioentzat "eguerdiko demoniñoa" da.

Ba-dakigu oso langillea zala, eta bere burubideetan sendoa. Gaiñera oso jakituna.

1527n. urtean jaió zan eta bere gurasoak Karlos I edo V ta Isabel Portugal'ekoa ziran. Bere denporan erregerik adoretuena ta indartsuena izan zan.

1543n. urtean asi zan errege-lanak egiten, baiña iñoz be ez zan izan bere aitaren erreñu guztietako errege, aitik inperioa Fernando, Felipe'ren anaiari emon eutsolako, baiña bere menpean eukazan España, Rosellon, Franco Condado, Paisas Bajos, Sizilia, Zerdeña, Milan, Napoles, Oran, Tunez, Portugal eta onen lurraldeak Afrika'n, Egoamerika españatarra ta Filipinas.

Arazo bi eukazan aurrean errege izaten asi zanean: Frantze'gazko guda eta islandarren semaia. Frantze'gaz Aita Santua egoan, baiña gure errege katolikuak guda egin eutson eta San Quintin eta Gravelinak irabazi eba-

zan. Islan'en aurka guda gogorra egin eban piratak eta turkoak euren lagun zirala. Islandarrak gogor jokatu eben Alpujarras'en baiña Austria'ko Juan, Felipe'ren anai-ordeak menperatu ebazan. Beronek azpiratu ebazan Lepanto'n be.

Zori txar aundiak eta asko izan ebazan etxean, baiña berak ez eban gogoaldu.

Protestanteak ez eban izan ain zori ona: 1588n. urtean bialdu eban Englandia'ra "Armanda invencille" baiña ekaitzak zapuztu eben. Barriro be joan zan, birritan, Englandia'ren aurka, baiña beti galdu eban.

Beterri edo Paisas Bajos'en be protestanteen aurka jarri zan, aitaren aolkua alboratuta. Diru asko galdu eban eta guda bera be bai.

1598n. urtean makal ikusten eban bere burua eta bere gorputza usteltzen asi jakon, agoni luze bat jazateko. Eroapen aundia eta otoitz-zaletasuna agertu ebazan bere croitz-orduan eta santu lez agertzeko lez agertu zan. Bere izan zan protestanteai emon jaken erantzunik gogorrena, eta ortik etorri zan España'ren beera-bidea.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKEREAA IZKUNTZZA ZAAARRA

Lenengo ta bein, kontuan artu dagigun ez dala bardin izkuntzalaritzan agiri zaarrak aitatzea eta izkuntza bera noraiño dan zaarra jakitea.

Euskereak agoz artutako agiriak daukaz eta idatziak be bai.

Idatziak ez dira asko eta ez esanguratsuak.

Agozkoak oso antxiñakoak, zaarrak dira.

Akitania'ko idazkiak euskerea ta latera batera erabilten dabez, erromantzeak sortu baiño gizaldiak lenago.

Erromantze bakoitza latinkumea da eta une baten latiña ta erromantzeak (gastelera esaterako) alkar ulertu eziñera eldu ziran.

Baiña euskereari ez jako jazo olakorik: Latin'en aldiko euskerea eta gaurkoa alkar ulertzen dira, orregaitik euskerea erromantze guztiak baiño lenagokoa da. Noz itz egin ete zan gaur ulertuko ez geunken euskerea edo protoeuskerea? Ez dakigu, baiña latiña sortu baiño lenago beintzat.

Bein Joxemiel Barandiaran'eri itandu eutsoen kromagnon gizakiak euskeraz egiten ete eban. Eta bere erantzuna zurra izan zan: Bai, eta gu konturatuko giñan berari entzun ezkeru, euskeraz ebillala, baiña ez geuntsan ulertuko.

Egia esan, izkuntza guztiak (aldatuta erromantzea, aldatu bagerik euskerea) gizakien asierara garoez eta guztiak zaar-izate edo adin bardiña dauke.

Baiña noiztik egiten da euskeraz berba Auñamendi-inguruan?

Alboan izkuntzak ilten (latera) edo aldatzen (erromantzeak, iberoera, keltera, latera, arabiera) doazen artean, euskerea an dago, geldi!

Ba-dakigu indoeuropearrak noiz etorri ziran eta emen aurkitu eben euskerea, ez latina.

Eta zelan iraun eban euskereak ainbeste gizalditan, ugarte-antzeko izkuntza lez?

Euskerearen ipuiñetatik ateraten da aldi bakoitxeko euskerea, asierara eldu-arte, or agertzen da euskerea oso zaarra dala, Ementxe geure lurralde onetan. Erromatarren agiri idatziak dagoz. Orduan lenengo euskerearen barruan (ipuiñak, esaterako txalgorri, beigorri) gero arrietan eta gero idazkietan, azkenean EITB'ra eldu arte.

Ete daukoz euskereak zaarrak diran esaldiak edo joskerak?

Oraintsu Koldo Mitxelena'k argitaratu dau liburu-txu bat: "Textos arcaicos vascos". Or agertzen dira Akitania'ko idazkiekaz asi eta Erdi-Aro'ko abestietara eldu arteko esaldiak. Iñoz agertzen da ulertu-eziña dan esaldiren bat be: "ikedak ta diqueada". Aldi orretakoa dan Etxepare'ren liburua, idatzi diranen artean lenengoa (1545) eta euskerea gaurkoaren antzeko da, ulertzeko modukoa.

EGUZKIA

Goizian goiztik dator
izpi gozoenakaz
lurra otseintzera,
mendiak artzen dabe
lenengo argi izpiz
eguzki dirdira.

Egiz, gozorik dator
maitasuna zabaltzen
itxaso ertzetik,
mendiak adi daukaz
ongi-naia emonez
biotza zabalik.

Ta zu, eguzki eder,
izardiaren bizia,
zatoz maitekiro,
gizadi on guztiak
gogoz agurtzen zaitu
oparo oparo.

PAULIN



OLAZAR'tar Martin'ek

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO
200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²